

UNIVERSIDAD DE DEUSTO/DEUSTUKO
UNIBERTSITATEA - REAL ACADEMIA
DE LA LENGUA VASCA/EUSKALTZAINDIA

HITZARMENA/CONVENIO

DEUSTUKO UNIBERTSITATEAREKIN *HITZARMENA, 2001-XII-20*

Eguerdiko ordu batean bildu dira: Jose M^a Abrego, Deustuko Unibertsitateko errektorea; J. Haritschelhar, euskaltzainburua; A. Urrutia, euskaltzain osoa, **Jagon** sailburu-zuzendaritzakidea eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea; P. Altuna, euskaltzain osoa eta Deustuko Unibertsitateko irakasle ohia; Rosa Miren Pagola, Deustuko Unibertsitateko errektoreordea eta euskaltzain urgazlea; Ramuntxo Kanblong, euskaltzain urgazlea; Juan Manuel Etxebarria, Jabier Kaltzakorta eta Adolfo Arejita, euskaltzain urgazle eta Deustuko Unibertsitateko ira-



Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea

Boletín de Información Universitaria
Unibertsitateko Informazio Aldizkaria

Lunes, 7 de enero de 2002
2002ko urtarrilaren 7an, astelehena

nº 230 zk



Jean Haritschelhar, euskaltzainburua eta José María Abrego de Lacy, Deustuko Unibertsitateko errektorea.

kasleak; Jose Antonio Mujika, euskaltzain urgazlea; J.L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea eta Pantxoa Etxegoen, Iparraldeko Euskal Kultura Erakundearen zuzendaria.

Abrego jaunak ongi-etorria eman eta hasiera-hitzak egiten ditu, adieraziz, Deustuko Unibertsitateak aspaldidanik zuela *hitzarmen* hau gauatzeko gogoia.

Jarraian, Errektoreak eta Euskaltzainburuak *hitzarmena* sinatu dute eta komunikabideei banatu.

Ondoren, J. Haritschelhar euskaltzainburuak bere mintzaldia egiten du, azpimarratuz, betidanik Euskaltzaindiak Deustuko Unibertsitatean izan duen euskaltzainen presentzia, ez bakarrik gaur hemen direnak, baizik beste batzuk ere, alegia: Juan Mari Lekuona, Alfonso Irigoien euskaltzain osoak eta beste batzuk.

Segidan, Rosa Miren Pagolak *hitzarmenaren* xehetasunak emanez batera, euskaltzainburua eskertzen du eta baita ere J. L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea eta A. Urrutia, euskaltzain osoa eta irakaslea, zeren eta azken biok saiatu baitira *hitzarmen* hau gauatzeko ahaleginetan.

Eta honenbestez amaitzen da ospakizuna

CONVENIO DE COLABORACION ENTRE LA UNIVERSIDAD DE DEUSTO/DEUSTUKO UNIBERTSITATEA Y LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKALTZAINDIA

Deusto-Bilbao, a 20 de diciembre de 2001

REUNIDOS

De una parte, el Excmo. Sr. D. José María Abrego de Lacy, Rector Magnífico de la Universidad de Deusto/Deustuko Unibertsitatea (UD) y por la otra, D. Jean Haritschelhar Duhalde, Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia,

EXPONEN

La Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia es una institución creada en 1918 por iniciativa de las Diputaciones de Araba, Bizkaia, Gipuzkoa y Nafarroa con el objetivo fundamental de cultivar científicamente todo lo relacionado con la lengua vasca.

Dicha entidad fue reconocida por Real Decreto 573/1976 de 26 de febrero como Real Academia de la Lengua Vasca, e institución competente en el campo de la lengua vasca, su investigación y tutela. Posteriormente, el Estatuto de Gernika de la Comunidad Autónoma Vasca y la

DEUSTUKO UNIBERTSITATEAREN ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA

Deustu-Bilbon, 2001ko abenduaren 20an

BILDU DIRA

Alde batetik, José María Abrego de Lacy, Deustuko Unibertsitateko Errektore jaun Txit Gorena eta, beste aldetik, D. Jean Haritschelhar Duhalde, euskaltzainburua,

AZALDU DUTE

Euskaltzaindia 1918.urtean sortu zen, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Aldundien ekimenez. Erakunde horren helburu nagusia da, hain zuzen ere, euskararekin zerikusia duten arazo guztiak zientziaren ikusmiratik lantzea.

Otsailaren 26ko 573/1976 Erret Dekretuak aitorten ofiziala egin zion Erakunde horri, Euskararen Erret Akademia gisa; harrezkero, Euskaltzaindia da euskararen arloko erakunde eskuduna, hizkuntza bera ikertu eta babesteko. Geroago, Euskal Autonomia Erkidegoko Autono-

Ley del Vascuence de la Comunidad Foral de Navarra han reconocido expresamente su carácter de institución consultiva oficial en materia de lengua vasca.

La Universidad de Deusto/Deustuko Unibertsitatea lleva más de cien años trabajando por la lengua y la cultura vasca en sus diversas manifestaciones y ha participado de forma significativa en los trabajos de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia a lo largo de toda su historia.

Al día de hoy, numerosos profesores de las distintas facultades, institutos y escuelas de la Universidad de Deusto/Deustuko Unibertsitatea colaboran activamente en las actividades científicas de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia bien como académicos de número, bien como académicos correspondientes o miembros de diversas comisiones de ésta.

CONVENIO

Para poder cumplir los objetivos de ambas instituciones y en aras a rentabilizar y regularizar las iniciativas de investigación y difusión de las investigaciones y la lengua y la cultura vasca, y aceptando las normas de procedimiento de cada una de ellas, ambas instituciones deciden la firma del presente *Convenio*, bajo el siguiente condicionado:

1. La Universidad de Deusto/Deustuko Unibertsitatea, en lo que respecta al euskara, reconoce a la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia como la Institución consultiva oficial.

mia Estatutuak eta Nafarroako Foru Erkidegoaren Euskara Legeak beren beregi aitortu dute Euskaltzaindia erakunde aholku-emaile ofiziala dela, euskarari dagokionean.

Deustuko Unibertsitateak, bestalde, ehun urte luzeko lana burutu du, hainbat arlotan, euskararen eta euskal kulturaren alde eginez. Ildo horretatik, Deustuko Unibertsitateak partaidetza esanguratsua izan du, Euskaltzaindiak bere historian zehar burutu izan dituen lanetan.

Gaur egun, Deustuko Unibertsitateko fakultate, institutu eta eskola desberdinetako hainbat irakaslek lankidetzat aktiboa dute Euskaltzaindiak gauzatutako jarduera zientifikoetan. Batzuk euskaltzain urgazle dira; beste batzuk, aldiz, euskaltzain oso; eta beste hainbat, Euskaltzaindiko batzorde desberdinetako kide.

HITZARMENA

Bi erakunde horiek euron helburuak bete ditzaten, ikerketa-ekimenak errentagarri eta egoki izan daitezen, eta euskararen nahiz euskal kulturaren inguruko azterketak zabal daitezen, bi erakundeok, bataren eta bestearen prozedura-arauak onartuz, honako *Hitzarmen* hau sinatzea erabaki dute, hurrengo baldintzokin:

1. Deustuko Unibertsitateak aitortu egiten du, euskaraz denaz bezainbatean, Euskaltzaindia dela erakunde aholku-emaile ofiziala.

2. La Universidad de Deusto/Deustuko Unibertsitatea y la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia se reconocen mutuamente como centros superiores de investigación. Por ello, ambas instituciones instrumentarán y desarrollarán proyectos de colaboración específicos en el ámbito de la investigación en lengua y cultura vasca, potenciando líneas comunes especiales e informándose recíprocamente de las prioridades de las programaciones investigadoras generales.

A este respecto, la Universidad de Deusto/Deustuko Unibertsitatea valora, a los efectos curriculares y de consideración de méritos, la actividad desarrollada por sus profesores en el seno de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, bien sea a través de su participación en las Comisiones de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, o bien a través de Congresos o Jornadas científicas organizadas por aquella o en los proyectos concretos de colaboración entre ambas instituciones que se realicen al amparo de este *Convenio*.

3. Los alumnos de la Universidad de Deusto/Deustuko Unibertsitatea podrán realizar prácticas en la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, en aquellos apartados en que la Comisión de Seguimiento, que se menciona en el punto 11, lo considere oportuno.

4. La Universidad de Deusto/Deustuko Unibertsitatea y la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, se facilitarán el recíproco uso de sus respectivos patrimonios investigadores, y en especial, de sus respectivas bibliotecas.

2. Deustuko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak elkarri aitortzen diote gorengo ikerketa-zentro izatea. Horregatik, bi erakundeok lankidetzaproiektu zehatzak bideratu eta garatuko dituzte, euskararen eta euskal kulturaren inguruko ikerketa eremuan; bi-bioi dagozkien lerro bereziak sustatuko dituzte, eta elkarri informazioa emango diote, ikerketa-programazio orokorretan zehaztutako lehentasunei buruz.

Horren harira, curriculumaren ondorioetako eta merituz gisa, Deustuko Unibertsitateak kontuan hartuko du irakasleek Euskaltzaindiaren barruan egindako lana. Irakasleek lan hori egin dezakete, dela Euskaltzaindiaren batzordeetan parte hartuz, dela Euskaltzaindiak antolatutako biltzar nahiz jardunaldi zientifikoetan parte hartuz, dela *Hitzarmen* honen itzalpean bi erakundeok sinatzen dituzten lankidetzaproiektu zehaztuetan parte hartuz.

3. Deustuko Unibertsitateko ikasleek Euskaltzaindiaren praktikak egiteko aukera izango dute, betiere, Jarraipen Batzordearen ustez egoki diren arloetan; batzorde hori 11. atalak aipatzen du.

4. Deustuko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak elkarri euren ikerketa ondareak erabiltzeko aukera emango diote eta, bereziki, euren bibliotekak erabiltzeko aukera.

5. Ambas instituciones científicas colaborarán de manera específica en la realización de proyectos destinados a la normalización de la toponimia vasca.

6. Se promoverá la cooperación en el ámbito editorial, propiciándose la coedición de textos de autores clásicos y actuales en euskera o los trabajos de investigación y difusión en el campo de la filología y literatura vasca, al objeto de difundir la producción científica de ambas instituciones sobre el euskara.

7. Los trabajos no publicados que puedan resultar de interés para la investigación, como las tesis u otros trabajos se pondrán a disposición mutua, respetando la propiedad de los autores y contando con el permiso de éstos.

8. Ambas instituciones científicas colaborarán en la consolidación de los fondos vascos de sus respectivas bibliotecas con el aporte de una serie de obras de sus fondos editoriales.

9. Ambas instituciones científicas impulsarán una política de colaboración en la creación y realización de masters y programas de postgrado en las áreas que competen a los estudios sobre lengua y cultura vascas.

10. La Universidad de Deusto/Deustuko Unibertsitatea se compromete a la difusión del presente *Convenio* en el seno de los Departamentos Universitarios e Institutos Universitarios.

11. Para encauzar los objetivos mencionados, la Universidad de

5. Bi erakunde zientifiko horiek elkarlanean arituko dira, bereziki, euskal toponimiaren normalizazioari buruzko proiektuak gauzatzeko.

6. Argitalpenen arloan, elkarlana bultzatuko da, eta baterako argitalpenak sustatuko dira, euskal idazle klasikoek nahiz egungo euskal idazleek testuak direnean, bai eta euskal filologia edo literaturaren eremuko ikerketa nahiz hedapen-lanak direnean ere, bi erakundeok euskararen inguruan sortutako testugintza zientifikoa zabaltzeko.

7. Lan batzuk, argitaratu ez arren, ikerketarako interesgarriak izan badaitezke, esaterako, tesiak nahiz bestelako lanak, orduan lan horiek elkarren eskura jarriko dira, betiere, egileen eskubidea errespetatuz eta egileon baimena lorturik.

8. Bi erakunde zientifiko horiek elkarlanean arituko dira, euren biblioteketako euskal funtsak sendotzeko; horretarako, euron argitalpen funtsetatik, zenbait lan ekarriko dituzte.

9. Bi erakunde zientifiko horiek lankidetzako politika bultzatuko dute, masterrak eta graduondoko programak sortu eta egin daitezen, euskarari eta euskal kulturari dagozkien eremuetan.

10. Deustuko Unibertsitateak bere gain konpromisoa hartuko du, *Hitzarmen* hau Unibertsitateko sail eta Institutuetan zabaltzeko.

11. Aipatutako helburuok betetzeko, Deustuko Unibertsitateak eta

Deusto/Deustuko Unibertsitatea y la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, crearán una Comisión de seguimiento formada por seis miembros, nombrando cada una de las instituciones firmantes de este *Convenio* los tres que le corresponden. El Rector de la Universidad de Deusto/Deustuko Unibertsitatea y el Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia nombrarán de entre los citados miembros un responsable de las relaciones de coordinación por cada institución. La Comisión de seguimiento se reunirá al menos una vez al año.

La comisión de seguimiento determinará anualmente, y mediante el correspondiente anexo los proyectos de investigación, coedición u otros que sean de interés conjunto para ambas instituciones científicas, así como la dotación presupuestaria y las demás circunstancias de dichos proyectos.

12. Este *Convenio* tendrá una duración de cinco años, siendo prorrogable por iguales periodos sucesivos siempre que no exista denuncia por cualquiera de las instituciones suscribientes, con tres meses de antelación a la conclusión del mismo.

Las actas de aprobación expedidas por los Secretarios Generales de ambas instituciones científicas se adjuntarán al texto de este *Convenio*.

Tras la lectura del texto de este *Convenio* y contando con la aprobación de los abajo firmantes, en nombre y representación de sus respec-

Euskaltzaindiak Jarraipen Batzordea sortuko dute; batzorde horrek sei kide izango ditu, eta *Hitzarmen* hau sinatzen duen erakunde bakoitzak horietatik hiru hautatuko ditu. Hautatutako kideen artean, Deustuko Unibertsitateko Errektore jaun Txit Gorenak eta Euskaltzainburuak arduradun bana izendatuko dute, arduradunok koordinazio-harremanen gaineko erantzukizuna izan dezaten. Jarraipen Batzordea izatean behin bilduko da gutxienez.


Jarraipen Batzordeak urtero-urtero eranskin egokia idatziko du, eta bertan zehaztuko du bi erakunde zientifiko horientzat zeintzuk izan daitezkeen ikerketa-proiektu, baterako argitalpen edo bestelako lan interesgarriak, zein izango den aurrekontu-zuzkidura, bai eta proiektu horien gainerako inguruabarrak ere.

12. *Hitzarmen* honek bost urteko iraupena izango du; baina iraupen bereko eta ondoz ondoko epealdietan luza daiteke, baldin eta erakunde sinatzaileetatik batek ere ez badu berau salatzen, indarreko *Hitzarmena* bukatu baino hiru hilabete lehenago.

Bi erakunde zientifiko horietako idazkari nagusiek onespren-aktak luzatuko dituzte, eta akta horiek *Hitzarmen* honen testuari erantsiko zaizkio.

Hitzarmen honen testua irakurri ondoren, eta behean sinatzen dutenak horrekin ados daudenez gero, goian aipatutako toki eta egunean si-

tivas instituciones, lo firman por duplicado en el lugar y fecha arriba mencionados.



José María Abrego de Lacy,
Rector Magnífico/Errektorea.
Universidad de Deusto/Deustuko
Unibertsitatea.

* * *


ANEXO

En desarrollo del punto único del *Convenio* del cual este documento es anexo y parte inseparable, la Universidad de Deusto y la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia establecen los siguientes proyectos de colaboración para el período 2002-2003:

a) La organización conjunta de una serie de actividades científicas y divulgativas del tricentenario del nacimiento del Padre Cardaberaz (1703-2003), sacerdote jesuita. A estos efectos, se creará la correspondiente Comisión paritaria de 6 miembros, 3 de la Universidad de Deusto y 3 de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, que se reunirá a lo largo del año 2002 para fijar los términos del proyecto.

b) La coedición de la *obra original de Oihenart* preparada por Patxi Altuna y José Antonio Mugika por parte de la Universidad de Deusto y Euskaltzaindia. Se consensuará un

natu egiten dute, bikoiztuta, eurek ordezkatzten dituzten erakundeen izenean.



Jean Haritschelhar Duhalde,
Presidente/Euskaltzainburua.
Real Academia de la Lengua
Vasca/Euskaltzaindia.

* * *

ERANSKINA

Dokumentu hau aurretiazko *Hitzarmenaren* eranskin eta zati banaezina da. *Hitzarmenaren* puntu bakarra garatuz, Deustuko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak hurrengo lankidetzaproiektuok ezarriko dituzte 2002-2003 epealdirako:

a) Jarduera zientifikoak eta zabal-kunderako jarduerak batera antolatzea, Aita Cardaberaz jesulagunaren jaiotzako hirugarren mendeurrena ospatzeko (1703-2003). Horretarako, bitariko batzordea eratuko da; batzorde horrek 6 kide izango ditu, 3 Deustuko Unibertsitatekoak eta beste 3, berriz, Euskaltzaindikoak. Batzordea 2002. urtean zehar bilduko da, proiektuaren nondik norakoak finkatzeko.

b) Deustuko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak *Oihenart-en jatorrizko lana* batera argitaratzea. Lan hori Patxi Altuna eta Jose Antonio Mugikak paratu dute. Bi erakunde-

presupuesto conjunto que será satisfecho por mitades e iguales partes entre ambas instituciones. Los ejemplares serán por mitades y recibirán los logotipos de las dos instituciones. Irán a las colecciones correspondientes de Euskararen Lekukoak de Euskaltzaindia. y Euskal Herria de la Universidad de Deusto. El libro será idéntico, si bien las cubiertas podrán adaptarse a las exigencias editoriales de cada institución. Las diferencias de valor que puedan surgir derivadas de las distintas ediciones se compensarán entre ambas partes.

c) En la normalización de los topónimos utilizados en los trabajos a realizar por el Instituto DEIKER de la Universidad Deusto para el Gobierno Vasco/Eusko Jaurlaritza y para la confección de mapas de Bizkaia a escala 5.000, los representantes designados por la comisión de Onomástica de Euskaltzaindia se encargarán de la supervisión de los citados trabajos, así como de la dirección de la normalización lingüística de los mismos.

Deusto-Bilbao, a 20 de diciembre de 2001

ok aurrekontu bakarra adostu, eta hori erdibana ordainduko dute. Aleak ere erdibanatu egingo dira, eta bi erakundeon ikurrak eramango dituzte. Lan horiek Euskaltzaindiren Euskararen Lekukoak izeneko bilduman eta Deustuko Unibertsitateko Euskal Herria deituriko bilduman sartuko dira. Liburua berbera izango da, baina azalak erakunde bakoitzaren argitalpen-eskakizunei egokitu ahal izango zaizkie. Argitaraldi desberdinak izateagatik, balio-desberdintasunak sortuz gero, bi alderdi horiek konpentsatuko dituzte.

c) Deustuko Unibertsitateko DEIKER Institutuak Eusko Jaurlaritzarentzat burutzen ari den Bizkaiko 5.000ko eskalako mapagintza-lanetan izendatu behar diren toponimoetan, Euskaltzaindiko Onomastika batzordeak izendaturiko ordezkariak lanen gainbegiratzea eta hizkuntza normalizazioaren zuzendaritza eramatea.

Deustu-Bilbon 2001ko abenduaren 20an